

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 14koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena, Titulazioen Ebaluazio Batzordeen kide batzuk kargutik kentzea eta Titulazioen Ebaluazio Batzordeen kide berriak izendatzea xedatzen duena, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainak 28ko 2012/13 Legeak xedatzen duena betez.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainak 28ko 2012/13 Legean, 8.3.d) artikulua xedatzen duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ondoren zehazten den Ebaluazio Batzordeko kide hau kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea:

Gizarte- eta Lege-Zientzietako Batzordea

Batzordekide akademikoa: Carlos Elías Pérez

Bigarrena.- Aholku Batzordeak proposatuta, hurrengo Ebaluazio Batzordeko kidea izendatzea:

Gizarte- eta Lege-Zientzietako Batzordea

Batzordekide akademikoa: Andreu Casero Ripollés

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 14an.

IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA

El Director de Unibasq – Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco

